

QUELQUES ASPECTS DE LA MORT AU PAYS BASQUE NORD

AGONIA

AGONIAKO ZEINIA

Le son de la cloche annonçant l'agonie

Heletan, agonian norbait sartzen zelarrik, agoniako zeinia joiten zen: hil zeinia baino usiago bainan bekan halere.

Hasten zen lau danga bekan emanaz izan dadin emazte edo gizon bat.

Gero, gizon baten dako, hiru danga segidan emaiten ziren; emazte batentzat: bi danga bat bestiaren ondotik ziren. Gero dangak bekan jo egiten ziren memento batez.

Uztailan 1989

L'ART DE MOURIR

Monsieur l'abbé Erdozaincy-Etchart est curé à Mendive; petit village de la montagne bas-navarraise à la limite de la Soule. Après avoir eu des entretiens avec lui sur le rituel traditionnel basque, je lui demandais ceci par lettre du 21-11-1986: "J'aimerais avoir quelques lignes du prêtre sur son témoignage touchant "l'art de mourir" dans nos campagnes, actuellement", je lui disais également "je vous engage à faire ce texte en basque".

Voici son témoignage; il parle ici de cinq cas qu'il a connus de près.

* * *

Heriotzea guzientzat memento latza da, bizitzeko eginak baigira eta ez hiltzeko: heriotzea da bakotzak gure aldian jasan behar dugun kurutzea! Bainan, Jainkoaren laguntzak ez du sekula huts egiten haren baitan beren konfiantza ezarria duteneri. Holaxet niz nihau azkartua izan ene sinestean, ikusiz jende ximple eta laño batzu bake osoan bururatzen beren mundu huntako bizia.

Uzten ditut berak mintzatzeraz:

– Marie Jeanne zuen izena. Dendaria, etxetan ibiltzen zen josten. Adin batean esposatua hargin batekin, haurrik ez zuten ukan, bainan elgarrekin uros bizi izan ziren aski denbora. Senarra hil zitzaion xaharturik. Marie Jeanne, bera ere adinean han harat joana, bakarrik gelditu zen. Bere baratzensa egiten zuen... erle zonbait baitzuten, heieri kasu egiten... eta, xerbitxu egiteko, arropa xahar frango betaxatzen auzoeri. Ez baitzen elizatik urrun bizi, ahal zuen guzietz intzuten zuen meza saildua. Lanetan hogoi ta zonbeit urtetan, higitua, etxean gelditu zelarrik, etxerat eremaiten nakon komunio-ne saildua... harentzat, zer atsegina Jesusen errezebitzea! Eritu zelarrik eta ohatu, beha zagon, bakea bihotzean, Jainkoa noiz jinen zitzakon xeka. Holaxet zituen, egun batez, ezti-etzia begiak hetsi mundu huntako argiari bertze mundukoari zabaltzeko.

– Pettiri, ez zen hain xaharra, bainan bizi nekea eremana laborantzaz: etxalde ttipikoa, artzaia ere ibilia zen sos poxi

baten irabazteko hurren hazteko. Eritu zelarrik joiten nitzitzaion ikustera. Egun batez, biziki sofritzen zuelarik, erran nakon: "Pettiri, ez zazula gal konfiantza Jainko baitan". Eskua hartu zautan, eta tinki-tinkia atxikitzen zautala, erran zautan: "Jauna, ene bizian ez dut sekulan galdu konfiantza Jainko baitan". Gaixo Pettiri, pausatu zen bizi izan zen bezala, bere konfiantza guzia ezarri Jainkoan.

– Kattalin, familia ederra aitxaturik, adin batetarat heldua, igande guzietz elizan zen oren laurden bat bederen mezako tenorea baino lehen: bere kaderan jarririk, otoiizean ari.

Igande batez, ondorat joanik, erraiten dakot: "Untsa egiten duzu hola goizik jitea meza sailduaren entzuterat". Ihardetsi zautan: "Ene biziko memento goxoan elizan iragaiten ditut". Holaxet zuen elizan kausitzen bake... eta, seguraren indar ere, bere egun guzietako biziaren eremaiteko Jainkoaren nahiaren arabera... nolana hiz, ezti-etzia pausatu zen Jainko baitan, mundu huntarik bertzerat joiteko mementoa jin zitzaioarik.

*– Joanes: bazituen zortzi haur ohorezki haziak eta aitxatuak mendi mazela bati kokatua dagon etxalde ttipi batetako mozkinetik. Baitzuen arreba bat Ameriketara, ardura izkiriatzen zuten elgarri. Lauetan hogoita zonbait urtetan, eskia ikaratzen hasirik nekez izkiriatzen baitzuen, azken letra, bere arrebari, bururatu zuen erranez: "Arreba maitea, azken letra dun ene ganik ukanen dunala, ikus artio **bertze munduko bizi eder hartan**". Hitz hauek erakusten daukute Joanesek nolako sendimenduekin igurikatzen zuen heriotzea.*

– Graziana, lau hurren ama, izaiten ahal zen emazterik hoberena, ez zuen gogoan ongia baizik. Senarra hila, haurrak kanporat esposatuak, bakarrik bizi zen. Lauetan hogoita zonbait urtetan eritu zen. Gau batez, ikustearrekin gaizki zela iloba batek nahi ukan zuen harekin egon. Etxerat igorri zuen erranez: "Nik Jainkoa aski dinak lagunetako"... Handik denbora laburrik barne, berak, bere bi eskuak hedatzen zituen apezari buruz, hunen eskutik hartzeko erien sakramendua... erakusteko ere Jainkoaren nahia onhartzen zuela, bere bizia eskainiz amodiozko akta haundi batean.

HABILLEUSES

DES HABILLEUSES DE MORTS, HIL BEZTITZALIAK (ISPOURE/IZPURA)

1) Ma grand-mère, POCHULU Mariana, habillait les personnes décédées au village d'Ispoure; elle allait chez les voisins mais aussi dans beaucoup d'autres maisons du village, parfois éloignées.

Elle allait dans les maisons dès qu'on la demandait car il fallait préparer le défunt à chaud.

Elle se déplaçait même de nuit quand le premier voisin de la maison du défunt venait la chercher: le temps de se préparer et de prendre ses affaires et elle était prête.